

Arrasate

P R E S S

1997ko
irailak 26
377. zenb.

IKUSPEGIA
**XABIER
LETONA**

IRITZIA
**IZASKUN
URKIOLA**

KULTURA
**MARITXU
KAJOI**

30 GALDERATAN
**JUANITA
ARANA**

KIROLAK
**SASKIBALOI
TALDEA**

Tabernetako ordutegia

Tabernendako ordutegi berria ezarri du Jaurlearitzak.
Horren aurrean tabernatik bizi direnak kezkatuta agertzen dira





MECA

San Andres auzoa • Tel.: 79 50 12 / 79 59 99 • ARRASATE



RENAULT



dTi 100 CV

Renault Turbo Diesel: Injekzio Zuzena Motor Berria

Bai, etorriko da gure eguna

Joan-etorria da bizitzaren arima. Jarioa. Ez da geldiuenerik, argazkiek kontrakoa erakutsi gura badigute ere. Hori da bizitzaren miraria, hor bere xarma eta gordintasuna. Eta orrialde hauotara etorri nintzen bezala noa: pozik eta gogoz, beste batzuen lekua hartuz orrialderatu nintzen eta beste batzuei leku eginez ateratzen naiz, gazteagoak bultzaka datoz eta. Errespetuz ekin nion, herritarren aurrean iritzia plazaratzea txantxetako ez zelakoan, eta konpromenez, herriko egunerokotasunean gertatzen direnei adarretatik heltzekotan. Astean zehar berba-multzoa bota ondoren, barikuan izango zuen eraginaren zain. Poteuen termometroa jarrita, ea ingurukoek zer komentatzen zuten. Mezuaren joan-etorria



Xabier Letona

lortuz gero, ni pozik.

Eskerrak eman behar dizkiot ARRASATE PRESSi aukera honengatik, aintzindari den proiektu honetan denboralditxo batez txoko bat eskaini izanagatik; eskerrak baita beren denboraren tartetxo bat nik tintaz jaurtitakoa irakurtzeko astirik hartu dutenei ere; eta eskerrik beroenak eskributakoaren gainean komentario txikiena egin didaten guztiei, holako ordainik ez dago eta.

Aitormeneta hasita, barkamen bat ere eskatu behar dut, batez ere ARRASATE PRESSEkoei, noizbait puntuan jardun badut ere, gehientsuenetan jarritako epea salto egin izan dudalako. Pazientzia behintzat izan dute etxe honetakoei. Lasaitasun bat gehiago ere izango dut aurrerantzean, Beñardok puntualitate zorrotzez bidalitako egutegiaren

ezusteko barik, gairik topatu behar izan barik... Ez, ez da lan itzela baina bai konprometitua, luma eta artikulua- ren artean jolaserako tarterik badagoe- lako baina arinkerietarako ez. Gaurko- an, ostera, gairik topatu beharrik ez eta, kontraesanei ekinez, arin-arin jarduteko aukera dut, agurra bera nahikoa baita. Ondo ibili, beraz, irakurle, formala izan eta bueltak amari.

Ezin amaitu, ordea, ziegako bakardadean edo atzerriko urruntasu- nean nire lerroren bat besterik ez bada irakurri dutenei agurrik beroena luzatu barik. Hemen idatzitakoak zuen borroetatik minutu bakarra besterik ez bada ihes egiteko balio izan badu, joan-etorria egina duen lagun batek zioen moduan: "perfes- to". Denbora gaitzak bizi ditugu eta gaitzagoak biziko antza, baina ezaguna duzen mondrauetar batek Euskal Herriratu zuen moduan: Aurrera Bolie! Edo, bestela esanda, irlandarrek gaelikoz dioten moduan: *Tiochfaidh ar la!* (Etorriko da gure eguna).

“Eskerrik beroenak eskributakoaren gainean komentario txikiena egin didaten guztiei”

377. zenbaki honetan

1997ko irailaren 26an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	12/14	Aurrez aurre	24/25
Irakurlea idazle	6	Txutxumtxuak.....	16/17	Kulturaren txokoa ..	26/27
Inkesta.....	7	Asteko gaia	19/21	Azoka plaza	30/31
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan	22/23	Foto zaharra	34

Ikuspegia

Xabier Letona **3**

Iritzia

Izaskun Urkiola..... **3**

Aurrez aurre

Purificación Gutierrez..... **24/25**

Kulturaren txokoa

Maritxu Kajoi Komisiñue **27**

30 galderetan

Juanita Arana **29**

Asteko gaia

Tabernetako ordutegia..... **17/19**



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Berardo Kortabarria. Kazaritza: Ixaro Zubillaga, Marian Porro, Patxi Montero. Publizitatea: Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 06 15). Administrazioa: Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). Diseinua: Golo Arana. Kolaboratzaileak: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. Banaketa arduraduna: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

26

ostirala

■ ZINEA

El mundo perdido. Alai zineman, arratsaldeko 7etan eta 10etan.

■ GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

Uribarrin eguerdiko 12etatik ordubata arte.

■ SAN MIGELAK GARAGARTZAN

Arratsaldeko 7etan jaien hasiera. 7.30etan *Ines eta Naiara* trikitilariekin erromeria. Gaueko 10etan *Eguzki* taldearen dantzaldia. 12etan *Lamina* eta *Neanderthal* deko gizona ongi etorria.

■ GUDARI EGUNEKO EKINTZAK-HITZALDIA

Alternatiba Demokratiako iruzketa hitzaldia Monterronen arratsaldeko 7etan. Hizlariak: Eman Hitza Herriari plataformako kide bat eta Herri Batasuneko partaide bat. Arrasateko KASek antolatuta.

■ SAN MIGELAK ARETXABALETAN

Arratsaldeko 6etan jaien hasiera eta umeendako bonba japoniarrak. 7etan erraldoiak eta buruhandiak. 8etan Tulio antzerki talde argentinarrek *El humor brujo* kale antzerkia eskainiko du. Gaueko 10etan Almeneko antzerki taldearen *Ai Ama!* *hau panorama* antzerkia Zاراia zinemaman.

27

larunbata

■ ZINEA

El mundo perdido. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ SAN MIGELAK GARAGARTZAN

Eguerdiko 12etan *Txikitxu* dantza taldearen erakusketa. 5.30etan Gorritiren eskutik jaialdia. 7etan bertsoariak. 10etan *Txinparta* rekin dantzaldia. 12etan bolo txapelketa.

■ MARITXU KAJOI NOBENAIXUA

Arratsaldeko 6.30etatik aurrera Herriko Plazan.

■ GUDARI EGUNA

Manifestazioa Seberotik arratsaldeko 7.30etan.

■ BAD-F-LINE TALDEAREN KONTZERTUA JAMEN

Arrasateko Bad-f-Line taldeak bere diskoaren aurkezpena egingo du Bergarako Jam diskotekan gaueko 10etan. Aurretik *Foscal* taldea.

■ SAN MIGELAK ARETXABALETAN

11etan txalaparta herriko plazan. 2.30etan Herri bazkaria Plazan Talde Antimilitaristak antolatuta 7etan Beinke-Loramendi dantza Herriko Plazan. 8etan larrain dantza. 10etan bolo txapelketa. 10.30etan *Ines eta Naiara* trikitixa taldearen dantzaldia. 11etan afizionatu mailako pilota partiduak. Goizaldeko 4.30etan txokolatada. Goizeko 11etatik 8ak arte Artisanu feria Herriko plazan eta III. produktu biologikoen feria eta III. patxaran lehiaketa.

28

igandea

■ ZINEA

El mundo perdido. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: 70 km. Irteera 9etan Monterrondik.

■ MENDI IRTEERA

Bidarrai, Irubelakaskoa eta Amaur. Goizeko 7etan Garibaitik. Besaidek antolatuta.

■ SAN MIGELAK GARAGARTZAN

12etan meza. 2.30etan herri bazkaria eta ondoren mus-briska txapelketak. 6.30etan Txinparta taldearen dantzaldia.

■ URIBARRIKO ERRETAULA

Uribarriko elizan 12etan meza. Ondoren luntxa Leze Txiki elkartearen.

■ INTSUMISO EGUNA AGURAINEN

Autobus txartelak Biona, Ekaitz, Jaizale eta Iturriotzen salgai. Autobusaren irteera ordua, goizeko 10etan Garibaitik.

■ SAN MIGEL JAIK ARETXABALETAN

Herri kirolak, mus txapelketa eta umeendako jolasak egunean zehar. Goizeko 10.30etan txirrindulari lasterketa Durana kaletik hasita.

■ EUSKO ALKARTASUNAREN EGUNA

EAKin Zarautzera joaten autobusa 10.30etan Garibaien.

29

astelehena

■ ZINEA

El mundo perdido. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

Santamainan, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

■ SAN MIGELAK GARAGARTZAN

Arratsaldeko 7etan meza auzoko zaindariaren omenez. Ondoren luntxa auzo-etxean.

30

asteartea

■ ZINEA

El mundo perdido. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

Musakolako alkatetzan, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

1 asteazkena

■ ZINEA

El mundo perdido. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

Gesalibarren eguerdiko 12etan eta Garagartzan 12.30etan.

■ HITZALDIA ARAMAION

Aramaioko Orixol mendi taldearen zilarrezko eztaiak ospatzeko hitzaldia antolatu da. Gaia: A.H.T.ren eragina nekazal guneetan. Aramaio-ko pleno aretoan arratsaldeko 7etan.

2 osteguna

■ ZINEA

El mundo perdido. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

Udalan eguerdiko 12etan eta Meatzerrekan 12.30etan.

■ PINTURA ERAKUSKETA

Urriaren 5a arte, Arrasate Margo Taldearen erakusketa Harresi aretoan. Orduategia lanegunetan 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

■ CORREOS-en OPOSAKETETARAKO IKASTAROA

Deba Garaiko langile Komisioak eta Correosko sekzio sindikalak oposaketak prestatzeko ikastaroa antolatu dute. Klaseak urriaren 27tik aurrera astean hiru bider emango dira: astelehena, asteartea eta asteazkenetan arratsaldeko 4etatik 6ak arte. Interesatuok deitu 79 52 60 zenbakira edo lokalera zuzendu.

■ GERIATRIA IKASTAROA

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentroak geriatria ikastaroa antolatu du urritik martxora arte. Klaseak astelohenetik ostiralera emango dira goizeko 9etatik 12ak arte. Izen ematea irailaren 30a arte egin daiteke. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira.

■ II. FRONTENIS TXAPELKETA

Urriaren 4tik aurrera larunbatero goizeko 9etatik 2.30ak arte.

Izenematea Musakolako kiroldegian. Prezioak: bazkide gazteentzat 800 pta. eta helduentzat 1.600 pta. Bazkide ez diren gazteentzat 1.200 pta. eta helduentzat 2.000 pta.

■ IRRATI TAILERRAK

Irrati kontrola ikastaroa urriaren 7tik abenduaren 16a arte, asteartetan arratsaldeko 7etatik 9.15ak arte. Erredakzio eta lokuzio tailerrak, urriaren 8tik abenduaren 17a arte, asteazkenetan arratsaldeko 7etatik 9.15ak arte. Matrikula 3.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat 1.500 pta. Plaza mugatuak. Izen ematea Gazte Bulegoan (77 00 65).

■ OINARRIZKO ELEKTRIZITATE IKASTAROA

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentroak oinarrizko elektrizitate ikastaroa antolatu du. 6 orduko iraupena. Klaseak asteartetan goizeko 9.30etatik 11.30ak arte eta ostegunetan arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte emango dira. Izen ematea lokalean edo 79 04 59 zenbakira deituta.

■ GOIKOBALU TXIKIREN IKASTURTEA

Goikobalu txiki urriaren batean hasiko da entsaiuekin. Arratsaldeko 8etan San Frantzisko

Xabier ikastolako aretoan elkartuko dira. Abesbatzan parte hartzeko aukera zabalik dago. Interesatuok entsaiu egunean lokalera joan zaitezke.

■ KABIBEKO DANTZEN IKASTAROA

Urriaren 20tik azaroaren 19ra arte astelehenetan eta asteazkenetan. Klaseak Musakolako saloian emango dira. Prezioa 4.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat 2.500 pta. Izenematea Gazte Bulegoan (77 00 65).

LABAYRU IKASTEGIA

Euskara ikasi eta hobetu!

- Alfabetatzea
- Euskalduntzea
- EGA
- Hizkuntz Eskakizunak
- Itzulpenak
- Mintzamena
- Hobetze Ikastaroa

Bizkaiera eta batua Matrikula-epaia zabalik!



LABAYRU IKASTEGIA

Aretxabaleta, 1, 1.
48010 BILBAO
443 76 84

E-maila: labayr01@sarenet.es



DISCOPOLIS

DISKO KONPAKTOAK • KASSETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA
Juan Carlos Gerra plaza, 1 behe • ARRASATE
Tel.: 77 02 13



MARKO-JARTZEAK ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxes: 79 13 84

GUARDIAKO FARMAZIAK


- Ostirala 26**
• Gaeuz: Amezua, Santamaina.
- Larunbata 27**
• Gaeuz: Ruiz, Maala.
- Igandea 28**
• Gaeuz: Morales, San Andres.
- Astelehena 29**
• Gaeuz: Azkoaga, Ferrerias.
- Asteartea 30**
• Gaeuz: Español, Iturriotz.
- Asteazkena 1**
• Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.
• Gaeuz: Guallar, Bergara.
- Osteguna 2**
• Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.
• Gaeuz: Estella, Bergara.

BEHARREKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igalatorioa . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
. . . 77 12 64
Oñati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udalzainzioak**
Oñati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Elektrizitatea (iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
. . . 79 78 44
. . . 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak . . . 79 12 22
PESA . . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**
Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

Lankide berria ARKOn

Tira, berri-berria ere ez da, aldizkari hau sortu zenetik bertatik dago eta gurekin (pentsa, ia bederatzi urte); Arrasate Telebistan ere, makina bat lan egindakoa da (*Musikantoi* ganberroan hasi eta *Astebete* serioan amaitu). Kontua da Patxi Montero 30 urteko arrasatearra lanera etorri zaigula ARRASATE PRESS eta ATBra. Arrasate Irratian eta Herri Irratian aritu izan da azken urteetan. Aurrerantzean, entzun bakarrik ez, ikusteko aukera ere izango duzue egunerero. Bera izango da ATBko albistegietako aurkezlea. Azkenean, harrapatu dugu!



Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:


- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimo, gaitzizenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatatuko ordenean kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

**UGARAN
jatetxea**
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Udal plenoetara joateko ohiturarik badaukazu?



Periko Arriola
(46 urte)
Langilea

Normalean ez. Eguna eta ordua ez dakit zergatik aldatu den, baina nire ustez ez da oso egokia.



Visi Garcia
(40 urte)
Etxekoandrea

Ez naiz sekula joan, egunkarian irakurtzen dut. Ordutegi berria txarto dago, jendea normalean asteleheneko ordu horietan ezin delako joan.



Alberto Lopez
(35 urte)
Langilea

Ez daukat ohiturarik. Ordutegiarena? Udaletxeko kontuak ez zaizkit batere ardura, total burua berotuta eta hankak hoztuta irteteko...



Consuelo Escudero
(49 urte)
Etxekoandrea

Ez daukat joateko astirik. Ordutegia ondo dago, baina nik ez daukat joaterik.



Jose Antonio Rojas
(48 urte)
Langilea

Ez naiz Udaletxera ezertarako joaten. Niri berdin zait zein egunetan eta zein orduetan jartzen dituzten.



Amador Cordero
(42 urte)
Langilea

Ez, ez naiz sekula joaten. Joaten ez naizenez, berdin zait.



Carmen Gonzalez
(26 urte)
Langile-ikaslea

Ez, sekula ere ez. Ordutegi berrian lanean nago eta ezin naiz joan, baina joan nahi duen asko ezin joango da.



Marta Martin
(22 urte)
Langilea

Ez, orain bi hilabete etorri naiz hona eta oraindik ez dut hau gehiegi ezagutzen. Ordutegia? ba ez dakit.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A
ZU LAGUNTZEKO GAUDE!
• Lunbago eta ziatikarako NEOPRENOzko gerriko elastikoak.
• Aluminiozko gurpil-aulkiak: arinak, elektrikoak eta tolesgarriak.
• Lanerako zuekoak.
Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

USTEAK USTE

Txikiak, onak eta pobreak

SND elkartearen aldizkaria, saria (errekonozimendua esan beharko dut, bestela Goioak akatuko nau eta) eman dio ARRASATE PRESSi, bere diseinua munduko aldizkari txikien artean onenetan sartuz.

Orain hilabete batzuk SNDko Design aldizkarian bertan iragartzen zen lehiaketa antzeko hori. Norberak bere aldizkari batzuk hartu eta Desing aldizkarira bidali behar zituen, han juzka zitzaten. Bidali genituenean, ez nuen inondik inora espero gurea aukeratu jakoen artean egon zitekeenik. Egia esan, orain pare bat aste enteratu ginen arte, ahaztuta ere baneukan kontu hori.

Sei amerikar eta geurea, besterik ez aukeratuen artean. Alde horretatik du garrantzia Design-en sariak, diseinuaz ulertzen dutenek emandakoa izatea. Eta horrek pozten gaitu, hain gaizki ez gabiltzala ohartzeko balio digulako, gauza batzuk gaizki egingo ditugula baina orokorrean aldizkari txukuna egiten dugula jakiteko. Lastima errekonozimenduarekin batera dolarren batzuk ez ekartzea!

Beñardo Kortabarria



Arrasate Kirol Proiektua ikasturtearen atarian

Izaskun Urkiola

Iritsi zitzaigun iraila, eta ia joan ere bai. Urriak bere atetik laister irèkiko ditu eta itxaroten ari gara hauek zeharkatu eta urtero bezala garai hauetan lagun artean ariketa fisikoa eta kirola praktikatzeko hasteko.

Arrasate Kirol Proiektua bere 8. urtean murgildu da bete betean. Elkarte honek antolatutako duen erakusketan lehenengo bezala, "8 urte kirolan hezitzen" darabilen ekintza hau martxan da honez gero.

Aurten hasiera berezia izan dugu, ez baita inoiz ikasturtea erakusketa batekin hasi. Astelehenean izan zen inaugurazioa, eta oraindik bertaratu ez zaretenak badakizue... pena merezi du benetan. Informazioa argia

eta zehatza eman nahi izanda. Honez gain, 3 bideo ere badaude: batek AKP zer den azaltzen du, bigarrenarekin denbora tarte atsegia pasatzeko aukera duzue udalekuetako irudiekin, eta hirugarrenean haurrei egindako elkarrizketak agertzen dira.

Hurrengo astean, bestalde, ikastetxeetako koordinatzaileak jo eta ke arituko dira taldeak osatu eta hauen

ordutegi eta instalakuntzak moldatzen eta hemendik aurrera... haurrak izango dira protagonista!! (Beti ere monitorea ahaztu gabe).

Udal eta ikastetxeetako kirol instalakuntzetan urtean zehar ohiko diren pare eta algarak entzungo dira, ekintzak hasi diren adierazgarri.

Txikienek ikastetxean bertan egingo dituzte ekintzak; nagusiek, berriz, Iturripe eta Musakolako kiroldegian. Kirol aukera zabala da, eta praktikaz gain txapelketak ere egingo dira, beti ere igandetako mendi irteerak eta ekintza bereziak ahaztu gabe.

Oraindik ez zarela apuntatu? Zoaz bada azkar zure ikastetxera izena ematera! Lagunak zain dituzu eta!

Izaskun Urkiola, AKPko teknikaria da

Arrasate Kirol Proiektua bere 8. urtean murgildu da bete betean

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzizioa
Offseta
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

Plus Ultra
taberna
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

Truke Operazioa

grupo

Amueblado
Mondragone

Zure ametsak trukatzen ditugu

Ekar ezazu

koltxoi zaharra...



eta 10.000 Pta. arte

deskontatuko

dizugu zure atsedeen

sistema berrian




FLEX



10.000 Pta.

Eskeintzen dizugu

Amets zoriontsuak



Prezio hoberenean



Centro Hogar Muebles

grupo



Amuebladora
Mondragonesa



a.e.m.e. interiores



TXATXILIPURDI 97-98

Ondo pasa ikasturte berrian!



2 urtetik aurrera

LARUNBATETAN UDALEKUAK BUELTAN!

- Jolasak • Patinatza • Txikiparkera
- Asteburuetako irteerak

Goizez edo arratsaldez:

10etatik 11tara edo 3etatik 6etara

Matrikulazio epea: irailak 30a baino lehen



11 urtetik aurrera



TAILERRAK ETA TXANGOAK

- Hankapaloak • Gitarra • Dantza edo Koreografia • Argazkilaritza • Irrati eta Telebista • Sexualitatea • Surf, Piragua
- Asteburuak etxetik kanpo

Matrikulazio epea: irailak 30a baino lehen

18 urtetik aurrera

AISIALDIKO BEGIRALE ZUZENDARI TITULOA

eskuratu nahi baduzu...

HAUXE DUZU AUKERARIK ERRAZENA ETA HURBILENA!!!

Matrikulazio epea: irailak 26a baino lehen



**Informa zaitez 79 54 46 telefonoan edo zatoz
TXATXILIPURDI ELKARTERA (Pablo Uranga kalea 4.zkb.)**

astea bi hitzetan

■ **Sutea Makatzena gainean**

Ostegun arratsaldean sutea izan zen Makatzena osteko mendiskan. Sutearen arrazoiak dira ezagutzen, baina ez zuen aparteko eraginik izan, han sasiak eta txabola batzuk besterik ez daude eta. Hori bai, ke galanta atera zuen, eta herrigunetik hain gertu zegoenez ikusmina sortu zuen. Zubillagako suhiltzaileek etorri eta 3 orduko lanaren ondoren menperatu zuten sutea.

■ **"Extra" kioskoetara**

Pasa den ostiralean ikusi zuen argia *Extra* egunkariak, Deba Garaian banatzen den egunkariak. *Deba Garaia prest* elkarrekin argitaratzen duen egunkaria elebiduna da, astelehenera izan ezik egunero kaleratzen da, eta egunero 5.000 ale ateratzen

dira. Eraikuntza aldaketaren ondorioz, urriaren 1a arte ez da berriro argitaratuko, EBZn kokatu behar da eta.

■ **Meningitisaren txertoa ikastetxeetan**

Meningitisaren aurkako txertoa hilaren 15ean hasi bazen ere, astelehenera arte ez zen ikastetxeetara eramán. Erguingo Herri Eskolako haurrak izan ziren txertoa hartu zuten lehenak. Ondorengo egunetan gainontzeko ikastetxeetan egingo da. Era horretan ikasten dabil-tzan haur eta gazte denek hartuko dute meningitisaren aurkako txertoa.

■ **Arrasate Kirol Proiektua erakusgai**

Arrasate Kirol Proiektuak antolatutako erakusketaren inaugurazioa egin zen astelehenera Monterron jaure-

gian. Inaugurazio ekitaldian, Proiektuko arduradunekin batera, udal ordezkariak izan ziren, Jose Mari Loiti alkatea tartean. Orain arte Kirol Proiektuak egindakoa eta bere filosofia, hamabost egunez ikusgai izango dira Monterronen.

■ **Rafa Agirre bihotzekoak jota hil**

Rafa Agirre 47 urteko arrasatearra bihotzekoak jota hil zen astelehen goi-



zean. Rafa oso ezaguna zen herrian, Eskolan eta Parrokiako koroan egindako lanagatik. Gaur egun Eskoriatzako koroa zuzentzen zuen, eta Eskola Politeknikoan irakasle lana egiten zuen.

“Arrasaten zerbait egosten ari da, zalantzarik gabe. Aspaldi honetan aldizkari oso txukuna kaleratzen dihardute, nazioartean sari garrantzitsua irabazi berri duena. Eta, horrezaz gain, egizue kontu zenbat aurpegi atera diren Arrasatek, gaur egun Euskal Telebistan eta bestelako telebistetan ere agertzen direnak”.

JOXE FELIX AZURMENDI

Euskadi Irratia
1997-9-18

“Aipamenak ez dakar berarekin diru ordainik, baina munduan zehar prentsaren gainean diharduen erakundearen aldetik errekonozimendua adierazten du”.

GOIO ARANA

El Correo
1997-9-23



BESAIDEN JENDE UGARI

Eguraldia lagun, mendizale ugari hurbildu zen pasa den domekan Besaidera. Urtero moduan, Besaide Eguna urtean zehar mendian bizitza galdu dutenak oroitzeko egun bihurtu zen. Horrekin batera, aspaldiko lagunak ikusi eta elkarrekin une gozoak pasatzeko balio izan zuen.

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

MARITXU KAJOI
egunerako



Non aukeratu soineko eta osagarri bereziak?

Casa Peciaga

Maalako Errebala, 3 • ARRASATE
Tfnoa/Faxa: 791262



Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Jaiotzak

- Nerea garai Gomez. Abuztuaren 28an.
- Uxue Bellido Altuna. 29an.
- Jone Mellado Urzelai. Irailaren 14an.
- Irene Dolara Balanzategi. 16an.

Ezkontzak

- German Moreno Balanzategi eta Maria Angeles Carrascal Gonzalez. Irailaren 6an. Elizaz.
- Joseba Iñaki Carmona Lopez eta M Carmen Vicario Mancebo. Irailaren 13an. Elizaz.
- Patxi Xabier Bengoa Arana eta Mirian Iria Ugarte. 13an. Elizaz.
- Ivan Negreira Rodriguez eta Sandra Lopez Salgado. 20an. Elizaz.

Hildakoak

- Ana Cabarante Torres. Abuztuaren 29an. 77 urte.
- Esperanza Urrutia Zubillaga. 31an. 53 urte.
- Antonio Piñeiro Pla. Irailaren 4an. 72 urte.
- Maria Josefa Urtubi Ercilla. 5ean. 97 urte.
- Rafael Agirre Marganes. 22an. 57 urte.
- Maria Gorriz Garriz. 23an. 88 urte.

Gaisoen familiarrak eta udal langileak klinika laguntzaileekin

Udaletxeko langileen, gaisoen, eta Iturbide Egoitzako gaisoen familiarren elkartasuna izan dute aste honetan Iturbide Egoitzako klinika laguntzaileek. Eurek, beren aldetik, mobilizazio-etara eta eguneroko ordubeteko lanuzteetara jo dute aste osoan.

Mobilizazioak astelehenean hasi ziren, Egoitzaren Zuzendaritza Batzordea bertan biltzen zela aprobe-txatuz, klinika laguntzaileak lan finko eta duina eskatzen zuen pankarta atera zutenean bilerara zihoazen politikarien aurrera. Klinika laguntzaileekin batera, sindikatu-erakundeak eta gaiso batzuk. Asteleheneko Zuzendaritza Batzordean sindikatu-erakundeak eta klinika laguntzaileei ostegun arratsalderako jarri zitzaizkien. Beraz, arazoa atzotara ezta-baidatzekoa.

Asteko gainontzeko egunetan mobilizazioekin eta ordubeteko lanuzteekin

jarraitu dute klinika laguntzaileek, euren protesta Udaletxera bertara eramanez. Udaletxeko gainontzeko langileek ere, elkartasuna adierazi diete Iturbidekoei, atzo goizean ordubeteko lanuzte batekin.


Gaisoen familiar-erakundeekin ere, jendaurrera atera duten ohar baten bidez, bat egiten nahi izan dute Iturbideko klinika laguntzaileekin. Gaisoen familiarren ustez, azken urtean gaisoak askoz hobeto

zainduta daude eta nabarmena da lan-talde egonkor baten premia. Oharrean, iritzia emateaz gain, eskakizun bat ere egiten dute, esanez aurrekontuaren zati bat eurek ordaintzen dutenez Zuzendaritza Batzordean egon beharko luketeela.

Astelehenean egoitzako zuzendaritza batzordea berriro bilduko da, eta asteartearen batzordeburuak, Blanca Roncalek, familiarrekin bildu nahi du.



Egunero atera dute pankarta Egoitzako klinika laguntzaileek.



Torreauzo, 9
Tel.: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI

Etxe Aundi
Hotela** Jatetxea

MARITXU GAUERAKO
menu bereziak.

Kontsultatu!

Gustora dastatzeko momentuak!

Udal eraikuntzak garbitzeko %1,6 igoera onartu da gobernu batzordean

Auzo Lagun enpresa arduratzen da Arrasateko udaletxe-ko eraikuntzak garbitzen. Azken Gobernu Batzordean berriz, Auzo Laguni ordaintzen zaion kopurua % 1,6an igotzea erabaki da. Beraz aurten 20.743.908 jasoko du garbiketa zerbitzua eskaintzen duen enpresak.

Auzo Lagunek gaur egun Udaletxe-ko jabegoan dauden 15 lokal garbitzen ditu.

Udaletxe-ko eraikuntza egunero garbitzen da. Etxe guztia txukun jartzeko 9 ordu t'erdia behar izaten dituzte eta orduko ordaindu beharrekoa 1.990 pezetatan dago. Batz bestea, urte osoan 5 milioi gastatzen dira Udaletxe-ko garbitasunean.

Udal biltegia ere egunero garbitzen da, ordubeteko lana izanda, 500.000 pta. izango litzateke urterokoa.

Erguin, Musakola eta Santandres herri eskolek ere egu-



Auzo Lagun kooperatiba arduratzen da udaletxe-ko eraikuntzak garbitzen.

nero behar izaten dute Auzo Lagunen zerbitzua. Eskola hauei 7 ordutik 9 ordura eskaintzen diote. Ordua 1.990 pta. tan ordaintzen da, beraz, hiru eskola hauen garbitasunean Udalak urtean 9 milioi eta 400 mila inguru gastatzen du. Azkenik egunerokoen artean Euskaltea eta HHI zentroa sartu behar. Dena

dela, zehaztu beharra dago hiru egunetan eraikuntza osoa garbitzen dutela eta bi egunetan komunak bakarrik. Euskaltea osoa garbitzeko 2 ordu t'erdia behar diren bitartean, HHI Zentroa ordu t'erdian egiten da. Monterron berriz astean sei bider garbitzen da, larunbata barne. Lau orduko lanaren prezioa 2 milioi t'erdia

pezetakoa da urte osoan.

Astean behin garbitzen diren artean Gazteendako Bulegoa, Santamaina, San Andres eta Musakolako Gazte Txokoak eta Zentro Multiprofesionala daude. Lokal horien garbiketari ordu t'erditik bi ordura eskaintzen diote. Hiruren arteko garbiketaren urteko prezioa 830.000 pta. inguru dago.

ARKOko eraikuntza, Azoka eta Santamainako liburutegia bestalde, astean birritan garbitzen dira. Azokaren kasuan, asteazkenetan komunak baino ez dituzte egiten, ordu t'erdiko lana, eta ostiralean osoa, hiru ordu eskaini behar. Gutxi gorabehera azokaren garbitasuna 519.000 pta. urteko. Zerrendarekin bukatzeko udaletxe aurreko iragarki taula, hilean behin garbitzen dena. Urtean zehar 11 egunetan garbitzen da 55.300 pezetako gastuaz.

Mobilizazioak Bilboko gertakarien ondoren

Manifestazioa izan zen asteazkenean erdialdeko kaleetan, bezperan Bilbon gertatutako bi hilketengatik. Manifestazio hasi zenerako, Ertzantzaren presentzia nabarmena zen.

Manifestazioa behin baino gehiagotan gerarazi eta egin zuten ertzainek. Tentsio unek bizi izan ziren, baina ez zen istilurik gertatu. Atzorako, mobilizazio eguna deitu zen.

Diru gehiago lorategiak eta parkeak txukuntzeko

Iaz baino milioi bat gehiago jasoko du Parques y Jardines de Abadiano S.A. enpresak urte osoko lorategien eta parkeen mantenimendua egiteko. Gobernu Batzordearen eraba-

kia dela eta, datorren abuzturara arte 57 milioi pezeta jasoko ditu Abadiñoko enpresak lorategiak eta parkeak txukun edukitzeagatik; iaz baino %1,6 gehiago.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



Erakusketa eta almagena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Atzo inauguratu zen Arrasateko EBZ-Saiolan Zerrajerako lokaletan

Jendaurrera aurkeztu zenetik urtebete baino gehiago pasa da. Ia urtea ofizialki eratu zenetik. Eta azkenean, atzotik fisikoki errealitatea da Arrasateko Enpresa eta Berrikuntza Zentrua. Inaugurazioan, Roman Sudupe Gipuzkoako aldun nagusia, Javier Retegi Eusko Jaurlaritzako Industria sailburua eta Jose Mari Loiti Arrasateko alkatea izan ziren besteak beste.

Orain artea Saiolanek Eskolan duen egoitzan kokatu diren lau enpresa dira Zerrajerako eraikin eraberritua okupatzen lehenak: Almis Finantza-Informatika, Danka multimedia, ICTE hirugarren adinekoentzako zerbitzu kooperatiba eta Laintz, eraikitzen birgaitetan diharduen enpresa. Arrasateko EBZ Saiolanek zuzenduko du, baina momentuz bere oraingo egoitzan mantenduko ditu bere jarduera eta bulegoak, Eskola Politeknikoan.



Danka taldea izango da bere egoitza EBZra eramango duen lehenetarikoa.

Oraindik ez dago aurkikusita noiz trasladatuko den Saiolan bera EBZ berrira, nahiz eta gutxi barru bere izenak apainduko duen Zerrajera zaharreko fatxada.

Atzokoan inauguratu zena zentru berriaren lehenbiziko fasea besterik ez da. Lehen solairuko 600 m²tan bederatzi modulo eta enpresendako zerbitzu amankomunak bilduko dituzten

hainbat gune antolatu dira. Oraindik beste 300 m² daude lehen solairuan erabiltzeko moduan eta premien arabera atonduko dira. Urte batzuz barru, Arrasateko EBZ-Saiolanek Zerrajera zaharreko eraikin nagusiko hiru solairuak beteko ditu.

Atzo inauguratu zen lehenbiziko fase honen obrarako 27 milioi pezeta bideratu dira.

Astelehenean, Udal plenoa

Jose Mari Loiti jeltzaleak bere lehenbiziko ohiko plenoa gidatuko du datorren astelehenean. Azken orduko aldaketarik ez badago behintzat, bederatzi gai daude aurkikusita.

Alde batetik, garai batean Bake Epaitegia egon zen Erdiko kaleko eraikina enkante bidez saltzeko asmoa dauka Udalak. Asteleheneko udal bilkuran enkantea arautuko duen klausula-plegua onartuko da.

Bestetik, Seber Altube plazan dagoen Saburdi harategiari zati bat kendu nahi zaio espaloia zabaltzeko; bete beharreko tramitazioari hasiera emango dio udalbatzak.

Eta azkenik, aurreratu daitenke Bake Epaitegian jarritako ate blindatua ordaintzeko dirulaguntza eskatuko diola Udalak Eusko Jaurlaritzari. Milioi bat pezeta gastatu ditu Udalak epaitegian ate blindatua jartzeko.

Gogoratu aurrerantzean plenoak astelehenez izango direla, goizeko 9etan.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ARRASATEKO ERDU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIAK, EGA eta ALFABETATZE

Matrikula epea irailak 26

Beka sistema

Informazioa eta matrikula: ERDU AEK

EUSKALTEGIA

Garibai kalea 14, 3 (Sindikatu etxea) •

Tel.: 77 03 69

Udalaren laguntzaz




**EUSKARA
GALDUZ GERO
AKABO
GURE HERRIA**

aeek

EUSKALTEGI ETA BARNETEGIETAN (FORU eta ONDARROAN, T.F. 94/625 35 96)

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano

Zigorrola, 1 8. Pabilioia

Tel.: 77 11 30

ARRASATE

ELENA GALIZIARA EZKONDU

Elena Atienza arrasatearra Galiziara joan zen bere laranja erdiaren bila. Joan eta topatu. Ekainean Orensen ezkondu zen Pablo Binjauekin. Ezkonbidaian Mejikora joan ziren eta hemendik aurrera Pontevedrako Cambados herrian biziko dira. Zorionak bikote!



KOLONBIATIK KOOPERATIBAK EZAGUTZERA

Hamabi ikasle kolonbiar izan zituen Ikasbideko Iñaki Idiazabalek joandako astean. Kolonbiako sektore kooperatiboko lagun hauek, Arrasateko esperientzia ezagutzera etorri ziren eta komentatu zigutenez, oso berezia iruditu zitzaion. Euskaldu-non izaerak ere harritu zituen. "Madrilen zorrotzak eta serioak zinetela esan digute, baina benetan xarmangarriak zarete" zioen kolonbiar batek.



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

AUPA TITU!

Harrituta geratu zen Esti Loiti "Titu" bere taldekideek zapatuan egin zioten omenaldiarekin. Aurten utzi du emakumezko taldea baina horrek ez du esan nahi futboletik kanpo gertatuko denik. Izan ere, dagoeneko hasi da Donostian entrenatzaile tituloa ateratzen. Kontuak kontu, datorren urterako Mondrak badu entrenatzaile berria.



IZENA

Jorge Fernandez

ACB ligan debutatu duen lehen arrasatearra da 25 urteko Jorge Fernandez. Iaz Urbina Maltzaga taldeko jokalaria izan zen. Aurten berriz, Basconia Tau Ceramika taldera joan eta Forumen kontra minutu bat eta 40 segundu jokatzeko aukera izan zuen domekan. Jorgek Gasteizko bigarren mailako taldearekin fitxa duenez, behar bada hemendik aurrera ACBn jokatzeko aukera handirik ez du izango, baina hala ere pozik dago domekan bizi izandako esperientziarekin.



URREZKO EZTIAK!

Une gozoak eta ez hain gozoak baina beti ere maitasunez beteak igaroko zituzten Jesus Uribe eta Mari Puy Maeztuk ezkontuta daramaten 50 urteetan. Bikoteak bihar bertan beteko ditu urrezko eztaiak. 1947an Nafarroako Ancin herriko San Fausto elizan ezkondu ziren eta bihar hantxe egingo dituzte ospakizunak senitartekoekin batera. Jesus eta Mari Puyk sei seme eta bi alaba dituzte. Zorionak!



MECA GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000

24 orduko zerbitzua 365 egunetan

MECA

Harpidedun: berritu edo oparitu harpidetza!




Arrasatek kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatek kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean **3.000 pt**ako diru sarrera egin dezakezu **urriak 5a baino lehen** kontu korronte zenbaki hauetako batean:



- KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

 **79 02 26**

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE



Gida 98

Boskarren urtez, **ARKOk GIDA KOMERTZIALA** kaleratuko du bertan Leintz Balarako telefono erabilienak eskura izan ditzazun.

GIDAn agertzeko negozio bat edukitzea nahikoa da.

Zeure datuak ondo agertzen ez badira, edo GIDAr buruz zerbait esateko baduzu deitu **77 08 15** telefonora.



LASTER BISITATUKO ZAITUGU!



Gero eta lan gutxiago egiten ei da tabernatan.

Goizaldeko 4ak gutxi gorabehera. Oñatin, orain pare bat aste. Ehundaka lagun, pankarta aurrean zutela, manifestaldian. "Alkate honekin ez goaz inora" eta "Mozkortzeko eskubidea" moduko oihuekin. Ertzantza agertu eta eguna zabal-tzerainoko jaleoa, tiro eta guzti. Horren guztiaren arrazoia? Tabernak lehenago ixteko agindua indarrean jartzea.

TABERNAK IXTEKO ORDUTEGI BERRIA

Oñatira moduan Arrasatera ere iritsi da ordutegi berria. Arrasateko Udalak aste honetan bertan Eudelek bidalitako agiria ikusi eta tabernariei bidali die, ordutegi berriaren jakin-ean egon daitezen.

Jaurlaritzak ezarritako ordutegi berriak ostalaritza munduko negozio mota guz-

Tabernetako ordutegia

tietan du eragina. Zehatz mehatzesanda, ordutegi berria honako hau da:

- Degustazio, txokolategi... gaueko 10.30ak.
- Tabernak, jatetxeak, kafe-tegiak, elkarte gastronomikoak... gaueko 12.30ak.
- Taberna bereziak, pubak... goizaldeko 2ak.
- Diskotekak, goizaldeko 4ak.

Asteazken zeharreko itxiera orduak dira aurreko lerrotan

aitatutakoak. Izan ere, aste-buruetan eta jai berezien bezperatan, ordu bete atzeratuko da tabernen itxiera ordua. Modu berean, uda garaian, ekainaren 1ean hasi eta irailaren 30a arte, ordu erdi beranduago itxi ahal izango dira. Herriko jaietan, Aste Santuan, Ihauterietan, eta Gabonetan, berriz, apur bat luzatzen da epea, beste bi ordu gehiago. Dena dela, azken kasu horretan, Udalaren esku geratzen da

ordutegia gehiago murriztu edo luzatzea. Azkenik, Jaur-laritzaren Barne-Sailak ezarri duen ordutegi berrian, itxiera ordua luzatzeko beste arrazoi bat ere aipatzen da, interes turistikoa. Hau da: herrian zerbait antolatuko balitz, eta suposatuz gero turistak erakartzeko interesgarria izango litzatekeela ostalaritza negozioiek bi ordutan atzeratu ahal izango lukete itxiera ordua. Hor-taz, arautegian agertzen diren

orduetatik aurrera ezin egongo da bezerorik lokal barruetan, eta musika eta tragaperrak kendu beharko dira.

Aipatutakoez gain, gaur egungo egoerarekin alderatuz gero, beste murrizketa bat ere badakar Jaurlaritzaren dekretuak: gaueko 10etatik aurrera edaririk ez ateratzea lokaletik kanpo. Tabernariak arduratu beharko dira horretaz.

Bete beharrekoa zen hori. Baina, betetzen ez bada, zer? Isunak aipatzen dira lehenengo, 200.000 pezeta artekoak. Eta araudiari behin baino gehiagotan kasurik ez eginez gero, gogoragoak dira zigorrak: 200.000 eta 5.000.000 pezeta arteko isuna, lanean jarraitzeko debekua urtebeterako, lokala urtebeterako ixtea eta lan berdinean aritzeko sei hilabeteko debekua.

Goitik etorri legeak dioena orain artean. Hala ere, interesgarriagoa da kaltetuek zer pentsatzen duten jakitea. Horretarako, bideari ekin eta batek Arrasateko Ostalaritza Elkartearekin egiten du topo.

ARRASATEKO OSTALARIEN ELKARTEA

Ostalarien Elkartearen gorabeheren berri eman aurretik, eurekin berba egin eta gero oinarri sendoko pertzeptzio bat: Elkarte egon badago, baina apenas du funtzionamendu egonkorrik.

Orain 6-7 urte sortu zen Arrasateko Ostalarien Elkarte. Ordura arte, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearen zeuden gehienak, baina han diru-arazoak sortu zirenez bertakoa eratzea erabaki zuten. Arrasaten dauden 130 ostalaritza negozietatik, gaur egun 60 tabernaritik gora dago elkartearen.

TABERNARIAK DEKRETOAREN AURREAN

Fidelek, San Andres auzoko Foruen tabernaren jabeak, betetzen ditu elkartearen idazkari lanak. "Hasieran lana egi-



Tabernak negozio izaten jarraitzen ei du, baina jakina izatekotan 18 orduetik gora sartu behar egunero.

teko gogoarekin hasi zen elkarte, baina orain motel samar dago. Badakizu, norberanaz aparte jendea ez zaio ardurarik hartzea gustatzen".

Orduetegi berriaren arazoa dela eta, Ostalaritza Elkartek ez du bilera berezirik egin orain arte, nahiz eta horretarako asmoa baduen. "Berandu gabiltza eta behar bada aurretik bildu behar genuen. Dena dela, batzordea bildu eta Udaletxera joateko asmoa dugu, oraindik ez digute eta elkarte moduan ezer esan, eta geuk ere elkarte moduan ez dugu ezer erabaki". Elkarteak ez du iritzirik izango, baina Fidelek berak bai. Bere ustez kalte handia ekarriko die ostalariei goizago itxi behar izanak. "Astean zeharreko lanean ez du eragin handirik

izango, lehendik ere mugimendurik ez dago eta; asteburuan, berriz, argi eta garbi da kalterako. 1.30etan itxi behar badugu, jendea kanpora joango da, hemen egoera bereziko bi taberna besterik ez daudelako. Herriak bizia

galduko du eta gazteendako arriskutsua izan daiteke, behin errepidera irtenez gero istripuak gerta daitezkeelako. Orain 20 urteko egoera datorkit gogora, jende dena inguruko herrietara joaten zenekoa. Ez dakit Udalak zein

Ostalarien Elkartearen gorabeheren berri eman aurretik, eurekin berba egin eta gero oinarri sendoko pertzeptzio bat: Elkarte egon badago, baina ez du ia funtzionatzen.



Ordutegi berria sasi arazo berria

Osasun kontuetan eta ostalarien poltsikoan izan dezakeen eragina alde batera utzita, Jaurilaritzaren Barne Sailak tabernen eta antzekoen ordutegia arautzen duen dekretuaren gainean hiru berba egin gura nituzke.

Bata: Gustatu edo ez gustatu, neurria ez da batere popularra. Gautxori ugari dabil oraindik bazterretan, eta indarrean ezarri nahi bada, ez litzateke arraroa izango gautxoriek indarrarekin erantzutzea. Ohitura ezarriegia da gau-pasena, horrela bapatean desagertarazteko. Oñati horren lekuko.

Bi: Ordutegia ezartzen bada, gau giroa desagertuko da. Orduan izango dugu Europaren antza!

Hiru: Udalak, ahal duen neurrian, malgutasunez jokatu beharko luke. Lehendik ere gura baino iskanbila gehiago dago, eta horrelako arazo simple bategatik berri bat montatzea... Ez du merezi.

Beñardo Kortabarría

mugatzea, jende askok hurrengo egunean lanera joan behar duelako eta atsedena hartzeko eskubidea duelako; baina asteburuan...".

San Andres auzoa utzi eta erdialdera, Kajoi tabernara. Antonio bertan. Gaur egun ez dago Ostalaritza Elkartearen baina hasieratan egon zen. "Ilusio handiarekin hasi ginen, eta Udalarekin herriko araudia eztabaidatzen ibili ginean zerbaiterako balio zuen elkarteak; orain ezertarako ez, prezioak igotzeko besterik ez da biltzen, urtean behin".

Fidel moduan, ordutegi berriaren aurrean Antonio kezkatuta agertzen da. "Europar moduan bizi izatera ohitu nahi gaituzte, baina beti berdinen aurka egiten dute; dendariekin, esate batera, seguru ez direla sartzen. Gainera, bakarrik hemen egiten da, Euskal Herriko kanpo ez dute mugarik". Taberna oraindik negozio izaten jarraitzen duela dio Antoniok, baina gero eta zailagoa da. "Langileak behar den moduan eduki behar dira, garbiketa ordaindu behar, zergak, deklarazioa.... Lehen astean zehar ere, ostegunetan adibidez, lan asko egiten zen, baina orain bakarrik ostiraletan eta larunbatetan".

Ordutegi berriaren arazoa alde batera, Udalaren araudiaren inguruan ere badu kexarik Antoniok. Gogorregia bere ustez. "Taberna berria zabaldu nahi duenak, 28 dezibelioko insonorizazioa jarri behar du, eta hori oso garestia da. Imajina, 100 metro karratuko lokal batean 6 bat milioi behar dira horretarako. Eta zertarako? gero 12.30etan ixteko?. Gainontzeko baldintzak ere zorrotzegiak dira: ate bikoitzak jarri behar dira, kristal bereziak, aroztintza bikoitza, titularrak aldatu gura izanez gero erabat berriztu behar da taberna...".

Beñardo Kortabarría

jarrera izango duen, baina ustedut apur bat negoziatzeko jarreraz hartu beharko gintuzkeela, ordutegi berriarekin malgutasunez jokatu".

Astean zehar apenas eizabil jenderik Fidelen berbetan. Hala ere, oinezko askoren ustea baieztatuz, taberna

oraindik negozio ei da. "Bai, bada, baina ez orain urte batzuk beste. Esango nuke %10/20an jeitsita dagoela. Gainera jendeak konturatu beharra dauka tabernan dirua egiteko 18ren bat ordu sartu behar direla, eta barra ostean horrenbeste ordu egoteko nor-

Dekretoan isunak ere aipatzen dira: 200.000 pta. artekoak lehenbizi, eta araudiari behin baino gehiagotan kasurik ez eginez gero, 5.000.000 pezeta artekoak izan daitezke.

bait kontratatu beharra dagoela. Zergak ere hor daude, eta ez txikiak!

Bestalde, auzoetako negozioen egoera are eta okerragoa da. Asteburuetan auzoetako gazteek erdialdera alde egiten dute eta auzoak hutsik geratzen dira. Nik ulertzen dut astean zehar ordutegia

Saskibaloia entrenatzaile

IKER ZUBIRIA

“Entrenatzaile eta jokalaria izango naiz aurten”

— Nola animatu zara taldea hartzera?

— Hasieran jokalaria izateko asmoaz etorri nintzen baina entrenatzailea bilatzeko orduan arazoak dituztela ikusita, animatu eta taldeko ardura hartu dut. Zazpi urte daramatzat saskibaloian jokatzen eta sekula entrenatzaile izan ez arren, erronka berri honekin pozik nago.

— Zure burua entrenatzaile gisa ondo prestatuta ikusten duzu?

— Baietz esango nuke, jokatzen ere ikasi egiten denez orain dakidana praktikan jartzeko trebetasuna izatea besterik ez dut behar.

— Nolakoa izango da aurtengo denboraldia?

— Nibel handikoa ez, baina lehia bizikoa bai. Talde sendoenak La Salle eta Larramendi izango dira.

— Helburuak?

— Bakarra, mailari eustea.

— Zu aurten jokalaria eta entrenatzaile, nola moldatu behar zara?

— Aginduak batzutan kanpotik eta beste batzutan kanxatik eman behar. Dena dela inoiz ez dut horrelako egoera bat bizi eta ez dakit nola moldatuko naizen.


— Eskuan duzun taldeak zein maila du?

— Denetik dago, baina oreka lortu eta itxura ona erakusteko lan asko egin behar dugu.



Iker Zubiria buru dutelako denboraldiari aurpegi oer


Aurtengo jokalaria



Eneko Gorostidi

pibota


26 urte, donostiarra
1,92 altuera



Iker Letona

pibota

20 urte, arrasatearra
1,91 altuera



Iker Errasti

hegalekoa

20 urte, arrasatearra
1,90 altuera



Iago Gamarra

hegalekoa


20 urte, atxabaltarra
1,90 altuera

Iturripen denboraldiko lehen partidua

Arrasate saskibaloia taldearentzat zapatuan hasiko da 97-98 denboraldia. Lehen neurketa Iturripen jokatuko dute Logroñoeko San Bernabe taldearen kontra arratsaldeko 6etan.

Aurten bigarren mailan Arrasateko taldearekin batera beste hauek izango dira lehian: Logroñoeko San Bernabe, Donostiako Larramendi, Atletico San Sebastian, Tolosa, Santurtzi, Loiuko Urdaneta, Lizarra, Gasteizko Bacomat eta Deustuko La Salle.


elaskibaloitza taldea oena erakusteko gertu



Ander Mallabiarrena
pibota
20 urte, arrasatearra
2,03 altuera




Andres Gutierrez
hegal-pibota
23 urte, atxabaltarra
1,94 altuera




Eugenio Ayala
hegalekoa
21 urte, arrasatearra
1,83 altuera



Iban Garrido
hegalekoa
17 urte, arrasatearra
1,90 altuera



Mikel Asensio
basea
20 urte, arrasatearra
1,83 altuera



Asier Dublan
basea
18 urte, atxabaltarra
1,75 altuera

FUTBOLA Bigarren postuan sendo




Preferente mailako Mondra Beti Onak taldeari irabazi eta gero, sailkapeneko bigarren postuan dago 7 punturekin. Zapatu honetan bolada onari jarraitzen emateko beste aukera bat izango du Pasaia taldearen kontra Molinao futbol zelaian. Norgehiagoka arratsaldeko 5etan hasiko da. Jesus Mari Barrutiabengoa entrenatzailea baikor dago partiduen aurrean. Gainera baja batzuk izan arren, une honetan dituen jokalariekin berriro hiru puntuak lor daitezkeela uste du. Azken hiru neurketetan Mondrak zazpi gol sartu ditu eta bakarrik bi jaso. Bestalde Atxabalpen egongo da ihardunaldirik asteburuan; lehen mailako jubenilek Usurbilen kontra neurtuko dituzte indarrak zapatuan arratsaldeko 7etan. Bigarren jubenilen aurkaria Urola izango da, domekan eguerdiko 11etan; eta bigarren kadeteena Bergara, zapatuan eguerdiko 11.30etan.

FUTBOLA Bigarrenean ere bai



Mondrako emakumezko taldeak denboraldiko bigarren neurketa jokatu du Oartzunen kontra domekan arratsaldeko 4.30etan. Arrasatearrek lehen erronkan Bakartxo Luengok sartutako golari esker, 1 eta 0 irabazi zuten Añorgaren kontra. Beraz Oartzunera bigarren garaipenaren bila kementsu eta moral handiz joango dira. Oartzunek dena dela ez du gauza samur jarriko, talde sendoa du eta.

ESKUBALOIA Oñatiarrak aurrez aurre



Probak alde batera utzi eta zer egiteko gauza diren erakutsi behariko dute eskubaloitza taldekoek zapatuan. Jesus Mari Herreoren mutientzat partidu ofizialak hasiko dira eta lehen ihardunaldian Oñatiko Aloña Mendi izango dute nor baino nor. Neurketa arratsaldeko 5.30etan jokatu da Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Jokalariei dagokienez denak gertu izango dira neurketa aurrera atera ahal izateko. Aloña Mendi aurten igotzen da territorial mailatik bigarrenara; Arrasate berriz, jeitsi lehen mailatik. Datu horiez da esanguratsua. Izan ere, iaztik Arrasatek ia talde osoa berritu du.

RUGBYA Herensugearen aurkezpena



Herensugea betarano taldeak denboraldiko aurkezpena egingo du zapatuan arratsaldeko 4.45etan Garagartzan. Argazki ofiziala atera ondoren, lagun arteko neurketa egongo da jokoan. Aurretik 4ak aldera seniorrek Unibertsitariak 15 taldearen bisita jasoko dute. Hori ere lagun arteko neurketa izango da. Seniorrentzat liga urriaren 12an hasiko da.

Aldi bi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

PURIFICACION GUTIERREZ (PROSTITUTA ETA PROSTITUTEN ESKUBIE

“Prostituzioa ez da gettho”

Purificación Gutierrez, Emakume Asanbladak gonbidatuta Madriletik Arrasatera etorri zen prostituzioaren inguruko hitzaldi bat ematera. Hogei urte daramatza kalea egiten eta ofizioak libre uzten dizkion orduak, prostituten eskubideak defendatzen dituen talde batean ematen ditu.

- Nola egin zinen prostituta?

- Nire garaian asko hasi ginen bezala, indarrezko egoera batek bultzatuta. Hamazortzi urterekin haurdun geratu nintzen eta bakarrik atera behar izan nuen aurrera semea. Ez nuen lanik aurkitu eta prostituzioa izan zen geratu zitzaidan aukera bakarra.

- Nola eramaten da prostituta ofizioa amatasunarekin?

- Bada, edozein emakume langilek egiten duen bezala. Lanera joaten nintzenean hau-

rra umezaintzan uzten nuen eta itxiera orduan jasotzen nuen.

- Inoiz izan duzu ofizioa uzteko aukerarik edo gogoririk?

- Urtebetez utzi nuen, bigarren semea izan nuenean. Gizon batekin bizi nintzen orduan eta neskatilaren bila joan ginen bikotea izateko. Dena den, urtera gure harremana bukatu zen eta berriro prostituta lanean hasi nintzen. Familia aurrera atera behar nuen eta gainera neureganatuta dut nire ofizioa.

- Semeek zer diote zure lanbi-

deari buruz?

- Nagusienak 19 urte ditu dagoeneko eta besteak 12, eta momentuz, ez dute inongo

arazorik amaren lanbidea dela eta.

- Prostituten eskubideen defentsarako kolektibo madrildarraren partaide zara. Nola sartu zinen bertan?

- Nire ordu libreetan xiringak banatzen nituen beste lagun batzuekin. Lan hori zela eta, talde feminista batekin jarri ginen harremanetan eta prostitutei laguntzeko talde bat osatzea bururatu zitzaigun. Bizpairu urteko lanaren fruitua gaur



**“Guk eskatzen duguna zera da:
Gizarte Segurantza izateko eskubidea,
baja hartzekoa, jubilazioa jasotzekoa...
jakina, zergak ordainduko genituzke”**

EN DEFENTSARAKO TALDEKOA)

Getan baztertu behar”

eguneko kolektiboa izan zen. Orduetik, abokatuak, medikuak eta psikologoak ditugu prostituten alde lan egiten. Umeendako tailer bat ere antolatu dugu.

- Zuen eskakizunik garrantzitsuen prostituzioaren legalizazioa da.

- Bai, prostitutak edozein langilek dituen eskubideak izan beharko lituzke. Gizarte Segurantzaren izena duenak autonomia bezala eman behar du izena. Guk eskatzen duguna, prostituzioaren legalizazio orokorra da. Gizarte Segurantzaren izateko eskubidea, baja hartzeko eskubidea, jubilazioa jasotzekoa... Jakina zergak ordainduko genituzke gure soldataren arabera.

- Holandan gertatzen den antzera?

- Ez, ez. Holandako prostitutak gethoetan bizi dira. Poliziak guztiz kontrolatzen

ditu eta estatua da haien txuloa, zergetan itozten dituelako. Nik Madrilan erdi aldeko kaleak egiten ditut, baina nahi izanez gero, beste edozein lekutara joateko askatasuna izan nahiko nuke. Gethoetara prostituzioa baztertea ez da irtenbidea.

- Drogen eragina oso nabaria da prostituzioan?

- Bai, batez ere ofizioan hasi berri diren nesketan. Lehen beste egoera batzuk bultzatzen zuten emakumea prostituziora. Gaur egun asko dira *engantxatuta* daudelako

sartzen direnak.

- Txapero, trabesti eta prostituitzen diren beste taldeekin zer nolako harremanak dituzue?

- Gure lokalera etortzen dira transexual eta txaperoak eta hauek arazo larriagoak dituzte. Lehenengoak sexuz aldatu diren gizonak direlako, bigarrenak droga arazoetan murgilduta asko daudelako. Goi-mailako prostitutekin ez dugu harremanik, eta etxetakoak edo klubekoak noizean behin etortzen dira laguntza bila. Gure lokalak mundu

guztiarentzat zabalik dago.

- HIESaren arriskua nola bizi duzue?

- Neurriak hartuta ez dago arazorik. Guk preserbatiboaren erabilera exijitzen dugu eta ez duenak ipini nahi, hor konpon. Dena den, toxikomano gehienek ez dute neurririk hartzen.

- Prostituzioak badu amaierarik?

- Beti esan ohi den bezala, prostituzioa munduko lanbiderik zaharrena da. Ez dut uste bukatuko denik. Beti egongo da prostituzioa. Lanbide honekiko jarrera da aldatu behar dena. Batzuekiko gizaratearen hondakinak gara; beste batzuk erregularizazioaren alde agertzen dira. Ea poliki poliki, denon artean pentsakeraz aldatzen dugun eta lanbide zahar honen orain arteko kontzeptua ere aldatzen dugun. ■

“Arrazoiak aldatu egin dira.
Gaur egun, asko dira *engantxatuta*
daudelako prostituzioan sartzen diren
gizon eta emakumeak”



“Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago”

97/98 ikasturtea

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Alemana, Frantsesa eta Ingelesa.

Haur, gazte eta helduendako klaseak eta orain ere
“MULTIMEDIA” Sistema eskaintzen dizuegu.

INFORMAZIOA

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE
Tel.: 71 20 55

Olakua, 14 • OÑATI
Tel.: 71 60 00

Baster-alde

 Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • AREIXABALETA
Tel.: (943) 79 24 58

Abdon Juaristi pintorearen omenez

Arrasate Margo taldeak erakusketa jarri du Harresi Aretoan

Urtero bezala, Arrasate Margo Taldeak pintura erakusketa antolatu du Harresi aretoan. Aurtengoa erakusketa berezia da, euren maisu izandako Abdon Juaristi pintore bergararrari eskaini diotelako. "Udaberrian joan zitzaigun maisu eta lagunari omenaldi txiki bat egitea nahi izan diogu- esaten du Luis Jabier Arrietak, Margo Taldeko partaideak- oso maisu ona zen eta bi urte t'erditan asko ikasi dugu berarekin. Harreman pertsonalak ere, hobe ezinak ziren oso zabala zelako". Abdonek paisaia eta teknika irakasten zituen, asteazkeneko taldearen lokalean ematen diren klaseetan. "Bere eskua igarri egiten da taldekoen kuadroetan, baina hori irakasle-ikasle harremanean gertatzen den gauza normala da". Abdonen lekua, Luis Laskurain pintore bergararrak betetzen du orain.

ERAKUSKETA ABERATSA
Abdon Juaristiri eskainitako erakusketan, Arrasate Margo



Argazkiaren erdian, omendutako Abdon Juaristi pintore bergararra Margo Taldeko partaide batzukin.

taldeko 20 margolarik hartzen dute parte. Bertan, estilo eta teknika ezberdinak ikusteko aukera dago urriaren 5era arte. Luis Jabier Arrietak dioenez "aurtengoa, orain arte egin dugun erakusketarik aberatsena da. Estilo bereko kuadro banaka batzuk ezik, kontraste handiko erakusketa da". Material ezberdinak, pinturaren kontzepzio ezberdinak eta mota guztietako estiloak ba-

tzen dira. "Hiperrealismoa, paisaia, abstraktoa, erretratoa...denetarik dago. Margo taldeko partaideon hobekuntza nabari da". Aurrera begira, Legution beste erakusketa bat antolatzeko asmoa dute.

LEKUZ ALDATZEKO GOGOIA
Margo taldea Arrasateko 26 bat pintorek osatzen dute. "Taldea sartzeko eskaerak jaso ditugu, baina ez dugu toki fisikorik jen-

de gehiago hartzeko" dio Arrietak. Lokala frantziskotarren ospitale zaharrean dago eta taldekoen esanetan ez da pintura tailerrerako lekurik aproposena. "Argi naturala beharrezkoa da margotzeko, eta gure lokalean argi artifiziala besterik ez dugu. Ospitale zaharrean kultur etxe bat egiteko proiektua dagoenez, argi naturala duen gela bat eskatu nahi genioke Udalari".



ZIRT ZART ILEAPAINDEGIKO LANTALDEA BERRIZ ERE ZUEKIN!

GOGORATU 25 urte baino gazteagoak %20 ko beherapena daukatela.

Eta **MUTILAK**, astartetan prezio berezia.

Ordutegia:

Goizeko 10:00etatik 19:00etara.

(Eguerdian zabalik)

Astehenetan: 14.00etatik aurrera.

Corbea kalea 2.zkia, ARETXABALETA

(Eroski handiaren parean)

Egin zure erretserba 77 09 44 telefonoan.



ILEAPAINDEGIA

EDURNE IRAOLA eta UTZUNE URRIZALKI

MARITXU KAJOI KOMISIÑOKUAK

“Luzerako dugu Maritxu Kajoi”

Jo eta fuego ibili dira Maritxu Kajoi Komisiñukoak urteko jairik ospatuena prestatzen. “Dotore jantzi, eskapulari-xue erosi eta formal!” horixe da komisiñukoen gonbitea. Gero, bakoi-tzak gura duena egin dezala.

- Dena prest Maritxurako?

- **Utzune:** Hasi baino lehen, aurten ere Maritxu Kajoi ospatuko dela argitu beharra dago. Alkatetza aldaketa dela eta ez dela, aurten Maritxurik ez zela egongo zabaldu da herrian. Ez kezkatu, maritxuzaleok, aurten eta hurrengo urteetan ere, txikiteroen patroiairen omenezko jaia ospatuko da eta.

- Egitaraua nolakoa izango da?

- **Edurne:** Urtero egiten den antzerakoa: goizeko zortziretan etxalferuen hotsekin hasi eta zapatu goiza arte. Umeendako kale animazioa egongo da, Maritxuri omenaldia arratsaldeko 8etan, gauean dantzaldiak Txinparta eta Drindots taldeekin, Maalako kulero eta kartzontzilo lasterketa eta goizalderako salda beroa Kondekuako txosnetan. Internet-en ere egitaraua ikusi ahal izango da.

- Nola finantziatzen dira Maritxu Kajoi jaiak?

- **Edurne:** Tabernetako eta jatetxee-tako jabeen laguntzarekin eta eskapularioen salmentarekin. Udaletxeak azpiegitura bakarrik uzten digu, argia, musikariendako tarima...

- Gomendio bat jaiak hasi baino lehen?

- **Utzune:** Azken urteetan lora gutxi eramaten dira eskaintzara, eta gainera kuadrila berdinek eramaten dituzte. Herriko kuadrilak animatu nahi ditugu, Maritxuri egiten zaion omenaldian



lorak eramatera.

- Goizeko 7:30etan autobus berezi bat irtengo dela entzun dugu...

- **Edurne:** Mondragoetar guztien ideologiei erantzuteko asmoz, Bartzelonako ezkontzarako autobusa irtengo da Arrasatetik, trajeen eta soinekoen garbiketara zerbitzu eta guzti.

- Bederatziurrena bihar ospatuko da?

- **Utzune:** Bai. Txikiteoa ganoraz hasteko, arratsaldeko sei t'erdietan mahaiak ipiniko dira gazta eta ardoa banatzeko. Dena den, Gudari eguna dela kontuan hartuta, zazpi t'erdia aldera ordu bete inguruko etentxo bat egingo da.

- Maritxuren mirariari buruz zer?

- **Edurne/Utzune:** Horri buruz ez dugu tutik ere esango. Sorpresa gorde behar da.

aste gazte

■ INTSUMISIO EGUNA

• Igandean Agurainen. Arrasateko Antimilitarista taldeak autobusa antolatu du. Goizeko 10etan Garibaitik.

■ BEKAK

• “Empresa Pública” Fundazioak 400 beka deitu ditu, enpresatan lan praktikak egiteko. Epea: urriak 6.

• Unibertsitatez kanpoko ikasleendako beka eskatzeko epea: urriak 17.

• Unibertsiterako beka: urriak 15era arte.

■ LANA

• Nafarroako Parlamentua, dokumentalista baten beharrenda dago. Epea: urriak 12.

• Basauriko Udalak, geografia informatikako sistemaren administratzaile lanpostua bete nahi du. Epea zehazteke dago.

■ UNIBERTSITATE AUTOBUSAK

• Donostia eta Bilboko unibertsitateetara egunero joan etortzeko bus zerbitzurako izen emate epea zabalik.

■ IKASTAROAK

• Aisialdi Eskolek antolatutako ikastaroei buruzko informazioa Gazte bulegoan duzu.

• Gipuzkoan burutzekoak diren ikastaroen zerrenda jaso berri dugu.

■ LEHIAKETAK

• “Mugarik gabeko gazteak” VIII. Argazki Lehiaketa, Arrasateko Udalak eta ASA elkarteak antolatuta. Txuribeltz zein koloretan. Bi kategoria: a) Deba garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak eta b) 19-37 urte bitarteko edozein. Epea: urriak 10.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA


☎ 77 00 65

“Herriko kuadrilak animatzen ditugu Maritxuri lorak eramatera”

Dantza karibiarrok

(salsa, merenge, bachata)

- Hastapen mailako ikastaroa
- Noiz: urriaren 20tik azaroaren 19ra
- Astelehenetan eta asteazkenetan
- Non: Musakolako Saloian
- Matrikula: 4.000 pta. (2.500 ikasle eta langabetuentzat)



IRRATI TAILERRAK

Arrasate Irratian

- a) Irrati kontrola:
Urriak 7- abenduak 16
Asteartean
Arratsaldeko 7etatik 9.15etara
- b) Erredakzio eta lokuzio tailerra:
Urriak 8- abenduak 17
Asteazkenetan
Arratsaldeko 7etatik 9.15etara
Matrikula: 3.000 pta / 1.500 ikasle eta langabetuak.



EYSKAL DANTZAK

“Lore Gazteak” taldearen eskutik.

- 15 urtetik gorakoei zuzenduta.
- Urriaren 10etik Santamasak arte.
- Ostiraletan, 7etatik 8.30etara.
- Matrikula: 1.000 pta.

OHARRA: BIKOTE MIXTOEK LEHENTASUNA IZANGO DUTE



IZEN EMATEAK: GAZTE BULEGOAN: 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■

Juanita Arana

ARBA DENDAKOA



1. Zein da zure horoskopoa? Tauro.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Katua.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Genio bizia eta egizaletasuna, biek duten alde onak eta txarrekin.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Enbidiak.
6. Amets bat? Denok elkar maitatzea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Indarkeria.
8. Gertakizun historiko bat? Kalkutako Ama Teresaren bitzta.
9. Nor miresten duzu? Emakume langilea.
10. Zeri diozu beldurra? Minari.
11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Oso sentibera naiz, eta askotan egiten dut negar.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Garraiobide hobeak.
14. Eta zuri? Denbora.
15. Lanbidez aldatzekotan? Ez nuke aldatuko.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Gesalibar.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Egunero kirola egitea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Diario Vasco*.
19. Gustoko janari bat? Arraultza frijituak patatekin.
20. Liburu on bat? *Evita ser utilizado*.
21. Filmerik onena/txarrena? *La gata sobre el tejado de zinc/Asko*.
22. Musika talderik onena/txarrena? *El Consorcio/Bakalau* musika
23. Telebistako programarik onena/txarrena? *La 2eko dokumentalak/Al cabo de la calle*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Katu bat.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Dantzan eta eskulanak egiten.
26. Oporretarako toki bat? Blanes.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Barazkiak garbitzea.
28. Gomendio bat? Kontratu laboralak ondo irakurtzea.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bitzta? Familiagatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Denda handiagoa jarriko nuke.

Ia bizi guztia eman du dendari lanetan, guztira 30 urte, eta orain bere denda zabaldu du. Joan den astean inauguratu zuen denda berria eta bertan altzariak eta sukaldeak salduko ditu.



OPEL 

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 79 05 86

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Bergaran pisua salgai: bi logela, egongela, bainua... Tel.: 76 49 30.

• Osintun pisua salgai. 75 m². Tel.: 76 36 61. Arratsaldez.

• Bizkaia etorbidean 85 m²ko etxebizitza salgai. Hirugarren solairua. Tel.: 79 22 92.

• Erdialdean pisua salgai. Erdi jantzita 90 m². Ganbara eta garajearekin. Tel.: 79 42 13.

• Oñatiko alde zaharrea 3 solairuko etxea salgai. Ortu txiki bat dauka. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

3. Errentan emateko

• Ikasleendako pisua San Andresen. Tel.: 79 39 14.

• Aretxabaletan guztiz jantzitako etxebizitza alokatzen zaie ikasleei. Tel.: 79 47 04. Arratsaldeko 5etatik aurrera.

• Uribe auzoan pisua alokagai. Hiru logela, bi komun, saloia eta sukaldea. Tel.: (945) 13 29 08.

4. Errentan hartzeko

• Bikotea pisu bila Arrasaten. Tel.: 79 76 88.

• Gasteizen etxebizitza alokatzeko lagun baten bila nabil. Tel.: 79 57 31.

5. Etxe konpartituak

• Etxe konpartitu nahi dut Arrasaten. Tel.: 79 95 11. Kieran.

• Burgosen pisua osatzeko ikaslea behar da. Jana eta etxeko lanak egiteko pertsona daukagu. Tel.: 79 51 10 Saioa edo 79 28 05 Onintza.

• Bi ikaslek hirugarren bat behar dugu Erguinen pisua osatzeko. Hilero 20.000 pta. Tel.: (94) 491 26 17 edo (94) 491 06 69.

• Lagun bat behar da Bilbon pisua osatzeko. Tel.: 98 547 27 79 edo (94) 441 77 21. Monse.

• Pisua konpartitzeko 3 edo 4 ikasle behar ditugu Eskola inguruan. Tel.: (94) 447 32 99.

• Bilbon, Santutxu kalean gelak alokatzen dira. Tel.: (94) 433 80 81. Maribel. Gaez.

• Bakarrik bizi den emakume batek

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakutuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

etxea konpartituko luke San Andres auzoan. Tel.: 79 15 96.

• Norbait behar da Gasteizen pisua osatzeko. Tel.: 79 79 86 Maider edo 79 15 05 Maitane.

• Arrasaten gela bat alokatzen da. Tel.: 79 98 70. Aste barruan, gaez.

• Donostiako alde zaharrea pisua osatzeko neska bat behar dugu. Tel.: 79 00 13. Celina.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai edo alokairuan Uribarri etorbideko 3an. Tel.: 79 60 96.

• Garajea salgai Munarren. Tel.: 79 44 07.

• Erguin kalean garajea prezio onean salgai. Tel.: 79 18 70.

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Roneoko etxeetan garajea alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Garajea alokagai Zarugalden. Tel.: 79 23 06.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genduke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko lokala salgai. Tel.: 79 07 24

14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48 zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Janari denda errentan eman nahi dut. Tel.: 79 92 84.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska euskalduna gertu edozein

lan egiteko. Tel.: 79 48 97 eta 79 81 25. Arratsaldez.

• Esperientziadun emakumea prest goizez pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Esperientziadun ileapaintzailea lan egiteko prest. Manikura, pedikura, depilazioa. Diplomaduna. *Pivot point* tituloduna. Tel.: 79 03 94.

• Emakumea gertu etxeak, bulegoak edo eskaierak garbitzeko. Tel.: 79 80 96.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko gertu. Tel.: 79 72 92.

18. Eskaerak

• Emakumea behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 77 00 86.

• Bi ume zaintzeko emakumea behar da. Tel.: 77 00 19.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa beharrezkoa da. Tel.: 908 77 53 14 edo 77 01 73.

• Mutila behar da garraiolari laguntzaile bezala lan egiteko. Tel.: 907 70 20 46. Koldo.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• UBira arteko klase partikularrak ematen dira. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 46 75. Amaia

• Injenerutza kimikoak matematika, marrazketa, kimika eta fisikako klaseak emateko gertu. Tel.: 79 25 85.

• Esperientziadun neska klase partikularrak emateko gertu. Euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 28 61.

• Magisteritza daukat eta klase partikularrak emango nituzke Musakolan. Tel.: 79 35 24.

• OHO, DBH etea beste zenbait ikasgaietako klase partikularrak ematen ditut. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 79 47 35.

• Irakasle tituloduna eskola partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 94 04.

• Euskararen 2. urratsa emango dut ordubetetik 3etara. Ordubeteko saioak. Tel.: 77 04 98.

• ESO eta LOGSEko klase partikularrak ematen dira. Esperientziaduna. Talde txikiak. Tel.: 79 56 78.

• Alemanezko eta portugesezko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

• Suzuki Address salgai. Berria. 4.000 km. 100.000 pta. Tel.: 939 44 25 44. Juan.

• Ford Fiesta XR2 gorria salgai. 275.000 pta. Tel.: 907 94 29 24.

• Gaciva Mito motorra salgai. 125 cc. Beltza. Prezioa: 275.000 pta. Tel.: 907 94 29 24.

• Yamaha Jog motorra salgai. Prezioa: 70.000 pta. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Yamaha FZR 600 salgai. 28.000 km. Oso egoera onean. 400.000 pta. Tel.: 79 65 88. Rober.

• Golf GTI-rako porta eskiak salgai. Kateak oparituak ditut. Tel.: 79 86 33.

• BMW K-100 RS 16 V, ABS motorra salgai. Tel.: 79 86 33.

DENETARIK

26. Saldu

• Bi antxume, 15 kilokoak saltzen ditut. Tel.: 71 49 73. Alberto.

• Emilio Tucci-ren frak bat salgai dut. Egoera onean dago. Tel.: 79 14 64. Gaueko 9etatik aurrera.

• Larrabea Golf Klubaren 3 akzio saltzen ditut etxe aldaketagatik. Prezio interesgarria. Tel.: (945) 14 35 69.

• Gasoleozko berogailua salgai. Prezioa: 25.000 pta. Egoera ona. 500 litroko depositoa. Tel.: 77 04 61.

• Vitus bizikleta salgai. Tel.: 76 08 21.

• Zero Sette soinu txikia salgai (4 ahots). Berria. 169.000 pta. Tel.: (945) 27 44 26.

• Kastle eski berriak salgai. 1,90 m. Salomon fjazioekin (7 seriekoak) eta eskiatzeko botak (46 eta 37 zenbakikoak) salgai. Tel.: 79 86 33.

• Ordenagailua salgai prezio onean. Tel.: 79 14 71.

• 1. eta 2. baxiler teknologikoko euskarazko liburak erdi prezioan saltzen dira. Tel.: 79 71 25.

27. Erosi

• Bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke 5 urteko neskatila batendako. Egoera ona eta merkea izan behar du. Tel.: 77 12 01.

• Lanean ikasitako ardi txakurra erosiko nuke. Tel.: 71 49 73. Alberto.

30. Hartu

• Aretxabaletako profesionalen erizain laguntzailerako ikasi baduzu eta liburua soberan badituzu nik gustorara hartuko nituzke. Tel.: 79 68 71.

31. Galdu

• Urrezko kate bat galdu nuen Erguin edo Eskola inguruan. Tel.: 71 20 72. Dorleta.

• Zapatuan Biteriko kolunpioetan 7.45 eta 8.30ak bitartean karteratxo more bat galdu nuen. Barruan urrezko zigilua zegoen (95-05-07) jaunarzen data grabatuta zeukala. Tel.: 79 09 09.

• San Andres geltoki ondoko kabinan

egurrezko mangoa duen euritakoa ahaztuta utzi nuen. Sekulako balio sentimental du. Sarituko da bueltatzea. Tel.: 79 75 58.

32. Aurkitu

• Peugeot gorri bat BI matrikuladuna, ostiralean, irailaren 12an, gaueko 10.30ak inguruan lau gazte autostop ez hartu eta bertan giltzak ahaztu zituzten. Gazteak Elorriorako jaietara zihoazen. Giltzak Udaltzainguan utzi ditut.

• Ordulari bat aurkitu nuen Munarreko zubian. Pultseraduna da. Tel.: 79 08 04.

HARREMANAK

34. Agurrak

• Titu: Hego haizea ipar bihurtu eta zizkizun zapatuan nik bidalitako musubuxuak eraman. Izar

35. Kontaktuak

• Zumarragara egunero kotxez doan norbaitekin harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karlos. Eguerditan.



ARBA

SUKALDE ETA
DEKORAZIO
PROIEKTUAK

Juanita Arana

Mondragones kalea, 9 • ARRASATE

Tel./Faxa: 77 07 50

Hasieratik kalitatea



SUKALDEAK eta ELEKTRATRESNAK

Miele

ALTZARITAN ESKLUSIBITATEA BAILARAN

■ Horoskopoa

- **Aries** Lasaitu zaitez lehenbaitlehen lagunak galdu nahi ez badituzu.
- **Taurus** Zure alboan duzun mutikote horrek poztasuna emango dizu...
- **Gemini** Kokoteraino zaude lanarekin. Ordua da arnasalditxo bat hartzeko.
- **Cancer** Ez duzula Jeremy Irons ikusteko aukerarik? Hurrengoan izango da.
- **Leo** Joan zaitez azkar loteria erostera. Tokatuaz gero, deitu eh?
- **Virgo** Egun osoa telebista ikusten pasatzen duzu. Espabilatu!
- **Libra** Esan al dizu inork xarmangarria zarela? Bada sinistu!
- **Scorpio** Kontuz ibili hego haizearekin, zaudena baino erotuzago utziko zaitu eta.
- **Sagittarius** Lanpostua galduko duzu. Ez duzu trepa izaten ikasi?
- **Capricorn** Zure lagun berri horrek ez zaitu larregi maite.
- **Aquarius** San Ferminak gora eta behera! Aspaldi bukatu ziren mutil!
- **Piscis** Lagunek afaria prestatuko dizute, ez galdu ondo pasatzeko aukera!

■ Gurutzegram


1	2	3	4	5	6	7
8						9
10						11
11			12			13
14		15				16
17		18		19		
20						

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Itziar, Euskadiko judo txapelkunaren abizena. 8. Erraz ugaltzeko izaera duena. 10. Doinu. 11. Hegoamerikako oiha-netan bizi den guakamaio hegaztiaren beste izena. 12. (Ald.) Alfabetoko laugarren letraren izena. 14. Atzizkia. 15. Pertsona bati hark emandako zerbaiten ordez gauza bat ematearen ekin-tza. 17. Egun jakina. 19. Kroaziako irla Adriatiko itsasoan. 20. Gonbidatu.

Bertikalak 1. Zumar ugari dagoen tokia. 2. Ikusteko moduan, begi-bistan. 3. Suarmen jaurtikigai. 4. Sasoi, garai. 5. Buruzagi. 6. Neke-dura. 7. Haroko kontsonanteak. 9. Joan aditzaren erroa. 13. Afrika eta Asian bizi den bobidoen familiako ugaztun konkorduna. 15. Bi lurralde edo gehiagoren arteko muga. 16. (Ald.) Erlojuaren bigarren zatratxoa. 18. Terbioa.


Horizontalak: 1. Zabala, 8. Ugartkor, 10. Melodia, 11. Ara, 12. (Ald.) De, 14. Ri, 15. Truke, 17. Data, 19. Rab, 20. Inbitan.
Bertikalak: 1. Zumar, 2. Agertan, 3. Bala, 4. Aro, 5. Lider, 6. Akidura, 7. Hr, 9. Oa, 13. Zebu, 15. Tai, 16. (Ald.) Tak, 18. Tp.



weru®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
 BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
 Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
 ARRASATE




PVCko ate eta
 leihoez gain:
 Mocketak jartzea,
 zoru arinak,
 kortxoa,
 Louverdrape
 kortinak,
 Kortinoba, textila...

Urrian hasiko du Beñardo Kortabarriak *Tertulixan* saioa ATBn

Datorren urriaren 15ean, bi astetik behin egingo den programa berria estreinatuko da ATBn. Bere izenak dioten bezala, lagun arteko giro lasaian egingo den tertulixa izango da. Beñardo Kortabarriarekin, programaz programa aldatuko diren gonbidatuak egongo dira, gaurkotasunezko edozein gairen inguruan berba egiteko.

Beñardok azaldu digu tertulixaren nondik norakak.



Hamabostean behin antolatuko dira tertulixak

mundu mailakoak izan daitezke.

- Nolakoa izango da programaren dinamika?

- Azken hamabostaldian gertatutako notizia aipagarrienen errepasoa egingo dugu bideo batean. Gero, horien gainean egingo dugu berba. Dena den, gonbidatuek askatasun osoa edukiko dute euren gustoko gai bat edo beste aipatzeko.

- Zenbat berbalari egongo dira tertulixan?

- Kondizio eta adin guztietako 20 bat pertsona txandakatuko dira programetan, baina nahi duen guztiak izango du parte hartzeko aukera. Platoa oilotegi bihurtu ez dadin, launaka edo bosnaka elkartuko gara.

- Jendeak nola hartu dezake parte?

- Berbalari bezala etorri nahi duenak, ATBra deitzea besterik ez dauka. Programan ere, aurrez identifikatzen diren pertsonen deiak jasoko ditugu.

ATBren programazio berriaren aurkezpena

Arrasate Telebistak programa berezi bat eskainiko du urriaren 1ean (2an eta 3an errepetikatu egingo da) parrila berriaren aurkezpena egiteko. Programa berezi hau, Maier Urangak eta Unai Iparagirrek gidatuko dute, eta gonbidatu, bideo berezi eta sorpresekin osatuko da.

Bestalde, datorren hilean ere, ATBk larunbatetan emitituko du. Emisio ordua eguerdiko 1:30etan hasiko da eta hiru programa eskainiko dira jarraian. Kukaratz, Astebeite eta asteetan ikusitako beste programa ikusteko aukera izango da.



URRITIK AUERRERA IKASTAROAK AUKERAN

■ SALOI DANTZAK

Urriaren 6tik aurrera
Astelehenetan 15.15etatik
17.15ak arte
Natalio Maiztegiarekin

■ ESKULANAK

Urriaren 7tik aurrera
Asteartetan 15.30etatik
17.30ak arte
18.00etatik 20.00ak arte
Mila Akizurekin

■ SUKALDARITZA

Urriaren 8tik aurrera
Asteazkenetan 15.30etatik
17.30ak arte
Juan Carlos Mugarzarekin

Informazio gehiagorako dei egin 77 12 28 telefonora. Pablo Uranga Kalea, 6. behe

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Emakume Saila ■
ARRASATEKO UDALA





Zenbat aldatu den Arrasate oso urte gutxitan!. Batek baino gehiagok ondo baino hobeto gogoratu-ko dituzue gaurko argazki zaharrean agertzen diren hainbat eraikuntzekin, eta egia esan

gaur egunetik begirata eman ere, ez du Arrasate ematen.

Hasteko Kontzezinoko komentua parez pare, aurrean ortu ederra duela. "Leche sana leche Lana" propaganda erakusten zuen komentua inguratzen zuen hesiak. Orain, etxebizitza piloa dago bertan.

Komentuaren ondo ondoan, Goardia Zibilen koartela, eta hortik oso gertu Roneoren eraikuntza zaharra. Orain urte gutxi bota zen azken hori.

Aurrealdekoak orain arte aipatutako denak, baina gehiagoko fijatuz gero, orain desagertuta dauden hainbat eraikuntza ikus daiteke.

Eraikuntzen kontua alde batera, mendira begirada. Eta mendian detailetxo bat: ez zen denbora asko pinadiak sartu zituztela, pinu txikia ikusten delako alde batetik, eta landatutako zati gutxi ikusten delako bestetik.

LILURAT

MARITXU KAJOIRAKO

- Zeure soinekoak egiteko oihal eta osagarrietan aukera zabalena.
- Soinekoak moztu eta jozten dira.
- Egindako soinekoak saltzen dira.

Oso prezio onak! Zatoz lehenbailehen

Zerkaosteta kalea, 5 behea • ARRASATE tel.: 79 89 72



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA



Era guztietako artikuluak ileapaindegietarako

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 79 78 09

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

Aldi/bi

NISSAN

Aldibi Autoak, S.A


Zigorrola, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 71 20 02 • Faxa: 79 65 65



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Hemen zure amets guztiak egon daitezke.



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.A.



Hyundai

Musakola Autoak, S.A.



Mazda

Musakola Autoak, S.A.



Chrysler

Co-Car, S.A.



Nissan

Musakola Autoak, S.A.

iKIER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak...

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugaide kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42

FAGOR